



**IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO PROTOKOLOA, IKASLE
TRANSEI EDO GENERO PORTAERA EZ NORMATIBOA
DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza-sistemaren lerro estrategiko bat da aniztasunari erantzutea. Hori dela eta, hezkuntzako profesionalek gai izan behar dute, eskola inklusiboaren parametroetan oinarrituta, ikasleen eta haien familien dibertsitatea ezagutu eta aitortzeko. Hezkuntzako profesionalek aniztasun horiek detektatuz gainera, ikasle horiei beren eragozpenak gainditzeko lagungarri izango zaizkien bitartekoak eskaini behar dizkiete bizi dituzten egoera jakin batzuk gainditzeko, gainerako ikaskideekin berdintasun baldintzetan pertsona oso bezala garatzeko, aske eta zoriontsu bizi izateko eta arrakasta akademikoa lortu ahal izateko.

Planteamendu inklusiboetatik abiatuta, ume bakoitza modu pertsonalizatuan hartu, eta behar dituen arreta, laguntza eta erantzunak eman behar zaizkio; horrek eskatzen du, batetik ikastetxe seguruetan eta ikasgela heterogenoetan lan egitea; ikastetxeko giza-baliabide guztiak eta bestelako baliabide-mota guztiak ere erabiltzea; ikasle guztiei erantzuteko moduko estrategia eta metodologiak bultzatzea; eta bestetik, taldean, familiekin eta beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin. besoz besoz jardutea eskatzen du.

Batzuetan, inguruan aldaketa txiki batzuk egin behar dira ikasle transen kasuan. Jarduera-protokolo honetan zehazten den bezala, aldaketa horiek ikastetxeak egin behar ditu, ikasleekin eta horien familiekin batera. Bizi dugun prozesu horren barne, hezkuntza-komunitatea osoak adin txikikoak eta beren familikoak lagundu behar ditu. Horretarako, Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren barruan, dibertsitate afektibo eta sexualari buruzko sentsibilizazioa landu behar da, eta prestakuntza eskaini behar zaie bai irakasleei, bai ikasleei, bai senideei

Aurkezpen hau bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet irakasleen mintegiari, Berritzeguneko aholkularitzeari, Berdinduko entitateei eta EHU/UPVari, dokumentu honen enbrioia elaboratu dutelako; Eskola Segurua taldean parte hartu dutenei, dokumentu hau landu eta aberastu dutelako; bai eta trans ikasle batzuen familiei eta Chrysallis erakundeari egindako ekarpeengatik. Eskerrik asko dokumentuaren edukiarengatik eta prozesuan parte-hartzailak haur bultzatzeagatik, ahots guztiak entzun ahal izan baitira. Eskerrak eman nahi dizkizuet, halaber, aholku hauek erabiliko dituzuen ikastetxeoi; batetik, ikasleei lagunduko diezuelako beren identitatea baldintzarik egokienetan eraiki dezaten, eta bestetik, gure hezkuntza-sistema gero eta inklusiboagoa izan dadin lortzen ari zaretelako.

Cristina Uriarte Toledo

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburua

AURKIBIDEA

1.- Sarrera

2.- Adingabe transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei ikastetxeetan laguntzeko gomendioak

- 2.1. Komunikazioa, jakinarazpena. Balorazioa
- 2.2. Ikastetxeak har ditzakeen oinarrizko antolaketa-neurriak
- 2.3. Transfobiaren ondorioz gerta daitezkeen adingabekoen aurkako diskriminazioa, eskola-jazarpena, genero-biolentzia edo tratu txarrak direla-eta, bete beharreko prozedura

3.- Jarduera-flujograma

1. SARRERA

Eskola inklusiboaren hezkuntza-eginkizun nagusietariko bat da ikasle guztiei sozializatzen laguntzea, heldu eta hazi daitezen eta garapen integrala izan dezaten, betiere aniztasuna honela baloratuz: ikasteko eta hobetzeko aukera bat bezala eta ikasketak bultzatzeko aberastasun bat bezala. Horretarako, gizakion dibertsitatearen adierazpenak aintzat hartzen dituzten hezkuntza-testuinguruak sortu behar dira, alegia: kultur-aniztasuna, gaitasunena, baliabide sozioekonomikoa, aniztasun funtzionala, afektu- eta sexu-aniztasuna eta generoarena... Halaber, hezkuntza-testuinguru horietan kompetentziak garatzeko erabiltzen diren metodologiaren bidez, elkarrizketa, interakzioak, elkartasuna, berdintasuna eta ikasle guztiekiko errespetua ahalbidetu behar dira, eta esperientzia abegitsua eskaini behar zaie pertsona guztiei, guztiak aitortuta, baloratuta eta babestuta sentitu daitezen, alde batera utzita haien errealitatea edo zirkunstantziak.

Dena den, kontuan hartu behar dugu gure gizarteak ez dituela beti baloratzen dibertsitate guztiak, oraindik sexista dela eta genero normatiboetan hezten duela, eta maiz izaten direla, haren baitan, diskriminazio-egoerak, erasoak eta jazarpenak. Errealitate hori eskolan ere islatzen da, ume eta gazte batzuek arazoak izaten baitituzte garapen osasungarria lortzeko, sentitzen duten sexua ez datorrelako bat jaio zirenean ezarri ziotenarekin edo ez dituztelako betetzen maskulinitasun- edo feminitate-arau hegemonikoak. Hala, eskola-jazarpenaren kausarik ohikoenak dira, hain zuzen, gay, lesbiana, bisexuala edo trans izatea edo halakotzat joa izatea eta ez betetzea kulturalki gizonei eta emakumei ezartzen zaizkien genero-arauak.

Eskola inklusiboak erantzun bat eman behar dio errealitate horri, hezkidetzaren eta berdintasun-gaietan planteamendu globalak eginez, afektu-, sexu- eta genero-aniztasuna ezagutzeko eta errespetatzeko oinarrituta, ikastetxeen politiketan, kulturetan eta praktikan eragina izan dezaten. Curriculumean eta eskola-bizitzan, afektu- eta sexu-dibertsitatea ikustarazteko neurriak sartu behar ditu, bai eta biolentzia mota guztiak desnaturalizatzeko, tratatu onak sustatzen dituzten eta genero-biolentzia zein LGTBfobia prebenitzen dituzten hezkuntza-praktikak garatzeko, eta edozein tratatu txarrari proaktiboki eta sozialki erantzuteko ere. Planteamendu, jardura eta neurri horiek ikastetxean egiten diren agiri guztietan islatu behar dira (Hezkuntza Proiektuan, Curriculum Proiektuan, Bizikidetzaren Planean, Hezkidetzaren eta Genero Biolentziaren Prebentzioko Planean, Antolamendu eta Funtzionamendurako Arautegia, Barne Funtzionamendurako Arautegia, protokoloetan...), eta hezkuntza-komunitate osoak parte hartu behar du haiek garatzen.

LEGE-ESPARRUA

2006an, 25 herrialdeetatik etorritako 29 aditu entzutetsuek—zeinak diziplina desberdinetakoak eta giza eskubideen gaineko nazioarteko zuzenbidean esperientzia handikoak ziren—, aho batez hartu zituzten *Yogyakartako Printzipioak*, alegia, *Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak*. Zenbait printzipio adostez gain, zenbait gomendio eman zieten estatuei eta Nazio Batuen

Erakundeari, berdintasunean, diskriminazio-ezan eta pertsona guztientzako babesean aurrera egiteko. *Gizaki guztiak sortzen dira libre, eta jaiotzez dira berdinak duintasunean eta eskubideetan* printzipioa abiapuntutzat hartuta, honako hau ere zehaztu zuten: *Sexu-orientazio eta genero-identitate guztietako gizakiek giza eskubide guztiak izateko eskubidea dute*. Hezkuntza-Eskubideari dagokionez, hau dio 16. printzipioak: *Pertsona orok du hezkuntzarako eskubidea, bere sexu orientazio nahiz genero identitateagatik inolako bereizkeriarik gabe, eta horiei zor zaien begiruneaz*.

Abenduaren 9ko 8/2013 Legeak egokitutako **Maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzaren Lege Organikoak** urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolakuntza Orokorreko Lege Organikoan sexu- eta afektu-dibertsitatea errespetatzeko ezarritako zeharkako lanari jarraikiz, bere baitan hartzen du *sexu- eta afektu-dibertsitatea aitortzea* eta desberdintasunen balorazio kritikoa, edozein jokabide sexista saihesteko helburuz. Helburu hori ezarri izanak behartzen du homofobia eta transfobia errotik kentzen eta afektu- eta sexu-dibertsitatea onartzen eta/edo ikustarazten laguntzera (Gallardo eta Escolano, 2009).

EAEko legediari dagokionez, **Abenduaren 23ko 3/2009 Legeak** egokitutako **Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 Legeak** haurren lehentasunezko interesaren defentsan engaiatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeak. Hala, Hezkuntza Administrazioak diskriminazioa arbuiatzen duten eta dibertsitateak sustatu beharreko balio positibotzat jotzen duten balioetan hezi behar du, sexualitatearen eta afektibitatearen heziketarako programa espezifikoak eginez (24. artikulua, 2. eta 8b. atalak).

Gainera, **Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/ 1993 Legearen** helburuen artean haxe ageri da, 3. artikulua 2. atalean: *“Elkarbizitza demokratikoa ahalbideratzen duten baloreetan oinarriturik ikasleen normaltasuna askatasunean garatzea eta heziketa osatua bultzatzea, besteak beste, gaitasun eta joera kritikoa, berdintasuna, zuzentasuna, partaidetza, aniztasunarekiko begirunea, elkartasuna, gizartearekiko kezka, elkar emankortasuna eta elkarrenganako begirunea, bai eta giza eskubideen aldeko jarrera ere, sustatuko dituela”*.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen **abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak** ezartzen du, orobat, aitortu beharrekoak direla dibertsitate afektibo-sexuala eta kulturala, bai eta genero- eta kultura-nortasun malguak eta askotarikoak ere, eta zalantzan jarri behar direla kultura-, genero- eta sexu-nortasunagatik desberdintasuna sustatzen duten ereduak.

Halaber, xedapen orokorretan, dekretu berak 1. kapituluko 2. artikulua 2. atalean, azaltzen du ezen Hezkuntza-eskumenak dituen sailak hau guztia sustatuko duela: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak dituela —bakearen kulturari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzkoak—, kulturen, generoen, eta sexu-orientazioaren aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, elkarrizketa, garapen emozionala, gatazkak modu baketsuan konpontzeko estrategiak, eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak eta betebeharra.

Azken urteotako aldaketarik esanguratsuenetariko bat izan da, hain zuzen, **ekainaren 28ko 14/2012 Legea, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa**. Izan ere, lege horrek EAEko Administrazio Publikoa engaiatzen du, haren

hezkuntza-metodoak, curriculumak eta baliabideak genero-identitateen dibertsitatea errespetatzea eta ulertzea areagotzeko baliagarriak izan daitezela lortzearen alde. Bereziki ezartzen du EAEko hezkuntza-administrazioak irakasleei eta ikasleei zuzendutako genero-identitateari buruzko kapazitazio- eta sentsibilizazio-programak eduki behar dituela, hezkuntza publikoko maila guztietan, eta bermatu behar diela ikasle, langile eta irakasle transexualei eskola-eremuan behar bezala babestuko dituela diskriminazio orotik, gizarte-bazterkeriatik eta genero-identitatearen ondorioz eragindako indarkeriatik, bai eta jazarpenetik eta erasoetatik ere (V. Kapituluaren 16. 17 eta 18. artikulua).

Beste ekarpen garrantzitsu bat da **Abenduaren 22ko transexualen dokumentazio administratiboari buruzko 234/2015 DEKRETUA**. Gure kasuan, ikastetxea eta adin txikikoen kasuan, Protokolo honetan, *Ikastetxeak har ditzakeen oinarriko antolaketa-neurriak* 2.2. puntuari aipatzen den bezala, horrelako neurriak dokumentazioan martxan jartzeko irakasle-taldeak, adingabeak eta haren familiak horrela erabakitzearekin nahiko dela.

Lege-esparru atal honi bukaera eman baino lehen **201/2008 Dekretua** aipatu behar da, bertan Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira eta baita ikastetxeek esparru horretan nola jokatu behar duten ere.

Lehen azaldutako guztiari jarraikiz, eta ikasle adingabeen eskubideak babesteaz gain, dibertsitate guztien inklusioa, bizikidetzaren positiboa eta ikastetxeetako kide guztientzako –baita ikasle transexualentzako ere– esparru seguruak lortzea sustatzen duten ikastetxeak sortzen laguntze aldera, printzipio eta ohar orokor hauek hartuko dira aintzat:

- EAEko Hezkuntza Administrazioak zainduko du, *Hezkuntza-sisteman hezkidetzaren eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren barruan*, ikastetxeak errespetu-espazioak izango direla, alegia, genero-identitatea edo sexu-orientazioa direla-eta presiorik, erasorik edo diskriminaziorik gabeak.
- Hezkuntza-jarduerak eta neurriak garatuko dira, edozein sexu-orientazio, sexu-identitate eta genero-identitate besteak baino gutxiago edo gehiago delako ideian oinarritzen diren jarrera diskriminatzaileak gainditzeko hezkuntza-sisteman.

Bereziki, hezkuntza-komunitateak garatzen dituen proiektuek oso kontuan hartu behar dute pertsonen modu desberdinez onartzen dutela beren sexualitatea eta genero-identitatea, eta, horrenbestez, aintzat hartu behar dute pertsona bakoitzari bide horretan laguntzearen garrantzia. Zentzu horretan, baliteke zirkunstantzia batzuetan, lehen azaldutako guztiaz gain, zenbait neurri hartu behar izatea adingabe transexualei, hain familiei eta inguruari eta irakasleei laguntzea errazteko.

Zirkunstantzia espezifiko horiek Hezkuntza Administrazio bera behartzen dute baliabideak jartzera, lege bidez behartu ere (ekainaren 28ko 14/2012 Legea, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa), ikastetxeek erabaki egokiak har ditzaten pertsona horiei eta haien senideei sufrimendua ekiditeko eta erabakiak hartzen lagunduko dien gertuko laguntza emateko. Eskola-bizitzaren zenbait esparrutan neurriak hartzeko obligazioa ere

badute ikastetxeek: ikaslearen eskola-agirietan izenak aldatzea ala ez erabakitzea; nola erabili zenbait espazio, hala nola komunak eta aldagelak... Orobat, familiek egoera horretan hezkuntza-sistematik eta ikastetxetik zer jaso dezaketen jakiteko eskubidea dute.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dokumentu hau argitaratzen du ikastetxeek jarraibideak izan ditzaten adingabe transei eta haien familiei laguntza-prozesu horietan jarduteko. Oinarrizko orientabide hauetan ikasleen aniztasuna kontuan izatea behin eta berriro aipatzen da eta ikasle bakoitzaren egoera eta familiarena errespetuz tratatzea. Egoerak anitzak dira, adibidez, Ikasle batek sentitzen duen sexua ez dator bat jaio zenean, genitaleen arabera, ezarri ziotenarekin; hau da, ikaslea transexualitate egoeran egon daiteke; bere sexuaren arabera, gizarteak espero duenarekin bat ez datozen genero portaera batzuk izan ditzake beste ikasle bat eta abar; dena den, eskolaren zeregina ez da "etiketak" ipintzea (trans, transexuala, transgenero, trabesti, queer, identitatea oraindik zehaztu gabe... guretzat ikasleak dira eta edozein kasutan bezala, ikasle hauek euren garapenerako eta eskola arrakasta lortzeko izan ditzaketen oztopoak identifikatu eta horiek gainditzeko behar diren erabakiak eta neurriak hartu behar dira; beti ere familiekin kontaktuz.

Gomendio hauen **aplikazio-eremua**: EAEko hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxe publiko guztiak eta funts publikoen sostengua duten ikastetxeak dira protokolo honen eta proposatutako jarduera-neurrien hartzaileak.

2.- ADINGABE TRANSEI HEZKUNTZA-EREMUAN LAGUNTZEKO GOMENDIOAK

2.1. Komunikazioa, jakinarazpena, balorazioa

2.1.1. Egoera familiak eta/edo adingabeak berak antzematen duenean:

Zenbaitetan, ikaslearen familiak berak edo haren legezko tutore diren pertsonak ematen dute egoeraren berri, eta, beraz, eurek jakinarazten dute zuzenean adingabeak sentitzen duen sexua ez datorrela bat jaio zenean izendatu ziotenarekin. Horrelakoetan, ikastetxeko Zuzendaritzak horren berri emango die irakasle-taldeari eta Orientazio Sailari, egoera azter dezaten. Horrez gain, egokitzen jotzen duten beste pertsonaren batekin osatuko dute informazioa: tutorearekin, irakasle-taldearekin, ikaskideekin, senideekin...

2.1.2. Egoera irakasle-taldeak antzematen duenean:

Beste batzuetan, talde bateko tutoreak edo irakasle-taldeko beste edozein kidek antzematen du ikaslearen eguneroko jokabideak eta haren identitate sexuala ez datozela bat jaiotakoan aitortutako sexuarekin. Horrelakoetan, honela jokatuko da:

- Irakasleak edo tutoreak horren berri emango dio ikastetxeko Zuzendaritza Taldeari.
- Zuzendaritza Taldeak diskrezioz jasoko du egoerari buruzko informazio osagarria, eta informazio hori erkatuko du, tutorearekin eta irakasleekin eta irakasleak ez

diren gainerako langileekin.

- Tutoreak baloratuko du, Zuzendaritza Taldearekin batera, komeni den ala ez adingabearekin egoerari buruz hitz egitea.
- Tutoreak, Zuzendaritza Taldearekin batera, adingabearen legezko ordezkariekin batzartuko da, antzemandako egoeraren berri emateko, eta egoera hori erkatu eta baloratzeko.

2.1.3. Komunikazioa eta laguntza-prozesua. ERABAKIAK HARTZEA.

Ikastetxeko Zuzendaritzak laguntza eskatu ahal dio Berritzeguneri, prozesuaren edozein unetan, egoera aztertzeke eta ikastetxean laguntza, aholkularitza eta prestakuntza jasotzeko.

Beharrezkoa denean, ikastetxeko Zuzendaritzak informazioa emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari honako hauek argitzeko: egoera zer-nolakoa izan den, egoera horri erantzuteke ikastetxeak nolako urratsak eman dituen eta hartutako erabakiak zeintzuk izan diren. Ikuskaritzak begiratu behar du jarduera-protokoloa ondo betetzen dela.

Hasierako baloraziotik abiatuta (familia+ikastetxe zein ikastetxe+familia), erabakiak hatzeko faseari ekingo zaio. Une horretan, oro har, egoera hauetariko bat izango dugu aurrean:

2.1.3.1. Familia eta ikastetxea BAT DATOZ planteatutako egoerari buruzko BALORAZIOAN:

- Zuzendaritza Taldea familiekin eta irakasle-taldearekin bilduko da.
 - I. Tutoreak baloratuko du, Zuzendaritza Taldearekin batera, komeni den ala ez adingabearekin haren egoeraz hitz egitea.
 - II. Zuzendaritza Taldea + familia + orientatzailea edo aholkularia + tutorea:
 - Egoera horrek hezkuntza eta antolamendu aldetik dakartzan premiak eta beharrianak identifikatu behar dituzte, eta ikastetxean zer jarduera garatu daitezkeen proposatu eta aztertu behar dute.
 - Egoera horri aurre egiteko, hezkuntza-eremuan eta ikastetxean zer-nolako baliabideak dauden jakinarazi behar da.
 - Baliteke, ikasleak zer hezkuntza-premia duen aztertzerakoan, antzematea sexu-identitatearekin lotutako arazoren edo zailtasunen bat duela garapen pertsonala eta soziala gauzatzeko, eta, hori dela eta, hezkuntza-sistematik kanpoko bestelako baliabide espezializatuek esku hartu behar izatea. Horrela gertatuz gero,

legezko ordezkariari aholkua emango zaie baliabide horiei buruz. Era berean, baliabide publikoei zein elkarteei buruzko informazioa emango zaie, adingabe transexualen familien elkarteekin kontaktuan jartzeko modua izan dezaten.

- Ikastetxeak berriaz tutore bat jartzeko aukera emango die adingabeari eta/edo haren legezko ordezkariari, eskola-eremuaren barruko prozesuan laguntza eman diezaien. Adingabeak berak aukeratuko du pertsona hori, laguntza hori emateko prest dauden irakasleen artean.

III. Zuzendaritza Taldea + Irakasle Taldea:

- Egoerari buruzko informazioa eman.
 - Esku hartzeko proposamenak aztertu.
 - Aztertutako neurriak abian jartzeko erabakiak hartu.
- Erabakiak laguntza-plan batean jasoko dira, hauek bilduta: irakasle-taldeak eta familiak adostutako neurriak, oinarrizko antolakuntza-neurriak, arduradunak...
 - Egoera horretan dagoen adingabearentzat ikastetxean ingurune segurua sortzeko, funtzionamendu-neurriak eta jarraibideak adostu beharko dituzte guztiek; beraz, parte hartu beharko dute adingabearekin diharduten irakasle-talde osoak, ikastetxeko orientazio-zerbitzuak eta ikastetxeko zuzendaritzak.
 - Ikastetxeko zuzendaritzak ziurtatuko du, uneoro, modu ordenatuan eta zuhurtziaz trukatzeko delako informazioa familiaren eta ikastetxearen artean; gauza bera adingabea bizitzen ari den prozesuetan inplikaturako gainerako administrazioen artean ere.
 - Prozesu osoa ahalik eta diskrezio handienaz kudeatuko da, betiere adingabearen intimitatea eta ongizatea babestuta. Beste edozein interes legitimoren gainean, lehentasuna eman behar zaio adingabeak, identitatearen eta sexu-orientazioaren arabera, nortasuna askatasunez garatzeko duen eskubideari.

IV. Zuzendaritza Taldea+Hezkidetzaren Batzordea:

- Hezkuntza komunitateari zuzendutako sentsibilizazio-formakuntza saioak antolatzea (irakasleei, ikasleei, gurasoei, irakasleak ez direnei zuzendutakoak).

2.1.3.2. Familia eta ikastetxea EZ DATOZ BAT planteatutako egoerari buruzko BALORAZIOAN:

- a) adingabearen legezko arduradunek edo horietariko batek ez dute onartzen**

adingabeak sentitzen duen sexu-identitatea.

Horrela gertatuz gero:

- Zuzendaritza Taldeak eta Irakasle Taldeak neurriak hartuko dituzte, adingabea ikastetxean ondo dagoela eta integratzen dela bermatzeko.
- Ikastetxea ahaleginduko da familiari laguntzen egoera ulertzeko, bereganatzeko eta kudeatzeko prozesuan, adingabeak nortasuna garatzeko duen eskubidea errespetatuz. Zuzendaritza Taldeak eta/edo Orientazio Zerbitzuak edo Aholkulariak zabalik izango dituzte komunikazio-bideak (segimendua, zerbitzuei buruzko informazioa...).
- Tratu txarrak edo babesgabezia dagoelako zantzuak antzemanaz gero, Zuzendaritza Taldeak egoera horren berri emango die gizarte-zerbitzuei, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen babespean.
- Zuzendaritza Taldeak eta Hezkidetza Batzordeak hezkuntza komunitateari zuzendutako sentsibilizazio-formakuntza saioak antolatuko ditu (irakasleei, ikasleei, gurasoei, irakasleak ez direnei zuzendutakoak).

b) Ikastetxeak ez du onartzen familiak eskatutako 2.2. atalari dagozkion antolamendu neurriak hartzea.

Horrela gertatuz gero:

- Familiak gertatutakoaren berri emango dio Hezkuntza Ikuskaritzari.
-

2.2. IKASTETXEAK HAR DITZAKEEN OINARRIZKO ANTOLAKETA-NEURRIAK

Pertsona bakoitza bat eta bakarra dela kontuan hartuta, oinarrizkoa da kasu bakoitzean planteatzen diren premiei erreparatzea. Premia horien arabera, irakasle-taldeak, adingabeak eta haren familiak baloratu ahalko dute honako neurriren bat har daitekeen:

- Irakasleek eta irakasleak ez diren langileek, ikaslearengana jotzen dutenean, ikasleak berak edo/eta familiak jakinarazi dieten izena erabiltzea, bai eskolako jardueretan zein eskolaz kanpokoetan (azterketak barne).
- Ikasleak bere nortasuna adierazteko egokitzen jotzen duen sexuari egokitzea ikastetxeak barneko funtzionamendurako erabiltzen duen dokumentazio administratiboa (klase-zerrendak, noten buletinak, liburutegi-txartelak, ikasleenak...).

- Taldeko edo klaseko tutoreak gogoeta-uneak erabiltzea taldean bertan, ikasgelan dauden sexu-dibertsitateak ikustarazteko eta integratzeko.
- Pertsona guztiei bermatzea beren nortasuna adierazteko egokitzat jotzen duten janzkera ikastetxe-ingurunean erabiltzeko eskubidea, baita uniformeak erabiltzen duten ikastetxeetan ere.
- Komunak eta aldagelak erabiltzeari dagokionez ere, adingabe **transexualaren** segurtasuna eta intimitatea bermatzea, eta berarekin adostea espazio horiek zer baldintzatan erabiliko diren.
- Kasuren batean, espazio horiek sexuen arabera bereizi beharko badira, helburu zehatz batzuekin bat datozen arrazoiak direla medio, irakasleek kontuan hartuko dute zein sexurekin sentitzen den identifikatuta ikaslea.
- Baldin eta ikastetxean sexuen araberrako banaketa edo antolaketa egiten duten kirol-taldeak edo kirol-lehiaketak badaude, adingabeak, zer sexurekin identifikatzen den, hari dagokion ekipoa edo lehiaketan parte hartuko du, hala nahi izanez gero.
- Neurri horiek guztiak ikastetxearen Bizikidetzaren Planean eta Hezkidetzaren eta Genero Indarkeria Prebenitzeko Planean sartuko dira.

2.3. Transfobiaren ondorioz gerta daitezkeen adingabekoen aurkako diskriminazioa, eskola-jazarpena, genero-biolentzia edo tratu txarrak direla-eta, bete beharreko prozedura.

2.3.1. Behar diren neurriak hartuko dira, haurren aurkako diskriminazioa, eskola-jazarpenak, genero-biolentzia edo tratu txarrak prebenitzeko, eta halako egoerak gertatzen badira esku hartzeko, dagozkion protokoloak abian jarri. Neurriak ikastetxearen Bizikidetzaren Planean eta Hezkidetzaren eta Genero Biolentzia Prebenitzeko Planean jasotzen dira. Sexua dela-eta edozein eraso fisiko edo psikologiko, mespretxu edo irain edo jazarpen egonez gero, ikastetxeko zuzendaritzak, irakasleek eta hezkuntza-komunitateak erantzun tinkoa eta argia eman behar dute, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan jasotzen den bezala.

2.3.2. Hezkuntza-komunitateko edozein kidek jakiten badu edo susmatzen badu sexu-identitatea dela-eta badagoela edo egon daitekeela haurren aurkako eskola-jazarpenik, genero-biolentziarik edo tratu txarririk, egoera horren berri eman behar dio tutoreari, aholkulariari, orientatzaileari edo zuzendaritza-taldeari. Nolanahi ere, informazio hori jasotzen duenak ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio, beti.

2.3.3. Sexu-identitatea dela-eta, haurren kontrako eskola-jazarpena, genero-biolentzia edo tratu txarra egon daitekeela uste den kasuetan, dagokion Berdinen arteko tratu txarren kasuetarako Jarduera Protokoloa jarriko da abian, eta horren berri emango zaio Hezkuntza Ikuskaritzari.

2.3.4. Baldin eta ikaslearen sexu-identitatearen aurrean edo portaera “ez normatibo”en aurrean familiak duen jarrera dela-eta tratu txarra, babesik falta edo arriskua egon daitekeela antzematen bada, gertakari horiek adingabeak babesteko eskumenak dituzten agintariei, fiskaltzari edo agintari judizialari jakinarazi beharko zaizkie, ondorioztatzen diren datuen edo informazioen berri emanez. Halaber, lankidetzan aritu beharko da aipatutako administrazioekin, adingabeen lehentasunezko interesak kontuan hartuta (3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa:25. artikulua, 2. paragrafoa).

3.- JARDUERA-GOMENDIOAK

